


## EAEko gazteen ia erdiak uste du ETA bost urte baino lehen desagertuko dela

Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariitzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak ETAREN indarkeriari buruzko txostena plazaratu du ([48. Euskal Soziometroa](#), hain zuzen ere). Ikerketa horretan agertutako datuen arabera 18 eta 29 urte bitarteko EAEko gazteen %47 uste dute ETA bost urte baino lehen desagertuko dela. Aitzitik, laurden batek (%27) uste du ETA ez dela inoiz desagertuko. Azken iritzi hau askoz zabalduago dago gazteen artean biztanleria osoan baino (%20).




Dena dela, ETAREN desagertpenak gazteengan sortarazten dituen sentsazio nagusiak baikortasuna eta ilusioa dira (horrela diote, %56k eta %43k, hurrenez hurren).

[Gazteen Euskal Behatokiak](#), bere aldetik, gazteei dagozkien emaitzak aztertu ditu eta azpimarratu nahi ditu gazteriari buruzko beste datu interesgarri batzuk.

Euskadiko gazteek adierazi dute beraien arazo edo kezka nagusiak hauek direla: lan merkatuarekin lotutakoak (%68k aipatuta), arazo ekonomikoak (%28), etxebizitza (%19) eta hezkuntza (%13). Hala ere, 0 eta 10 arteko eskala erabiliz, gaur egun gauzak nola doazkien baloratzeko eskatzen zaienean, gazteek 6,4ko puntuazioa eman diote beraien egungo egoera pertsonalari.

0-10 arteko nazionalismo edo abertzaletasun eskalan gazteek 5,5 puntu atera dituzte; 0-10 arteko ezker-eskuin eskalan 4,3 puntu atera dituzte. Beraz, gazten puntuazioek biztanleria osoarenek baino neurri handiagoan jotzen dute nazionalismo muturrerantz (abertzaletasunik ez – abertzaletasun ardatzan) eta ezkerreko muturrerantz (ezker-eskuin ardatzan).

Bestalde, 2011ko udazkenetik hona ia alderdi guztiek hobetu dituzte beraien puntuazioak ([47. Euskal Soziometroa](#)). 0 eta 10 arteko eskala berriro erabiliz, Bildu koalizioak 4,6 puntu lortu ditu gazteengan, EAJK 3,9, Aralarrek 3,7, Ezker Anitza-IUK 3,3, PSE-EEK 3,1, UPDK 2,0 eta PPK 1,7.



Hainbat elkartek sortarazitako konfiantzari dagokionez, berriro ere 0 eta 10 arteko eskalarekin neurtuta, gazteen oniritzia jaso duten bakarrak udalak eta Gobernu Kanpoko Erakundeak dira (5,4ko eta 5,3ko puntuazioekin, hurrenez hurren). Ondoren datoz foru aldundiak (4,9), Batzar Nagusiak (4,8), Eusko Jaurlaritza (4,8), Eusko Legebiltzarra (4,6), sindikatuak (4,5), Europar Batasuna (4,2), komunikabideak (4,1), epaileak (3,8), enpresari elkarteak (3,6), Gobernu Zentrala (3,4), Diputatuen Kongresua (3,1), alderdi politikoak (2,8) eta Eliza (2,2).